

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lizitazioa araztegi berriko obra kontratatzeko

Berantevillako Administrazio Batzarrak, 2016ko urriaren 25eko kontzeju itxian, klausula ekonomiko-administratiboen agiria onartu zuen, zeinak arautuko baitu Berantevillako araztegi berriko obra kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko lehiaketa.

1. Erakunde esleitzaila: Berantevillako Administrazio Batzarra.
2. Kontratuaren xedea
 - a) Xedearen azalpena: prozedura irekia Berantevillako araztegi berriko obra kontratatzeko.
 - b) Loteak eta zenbakiak: ez.
 - c) Gauzatzeko lekua: Berantevilla.
 - d) Gauzatzeko epea: sei hilabete.
3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era
 - a) Izapidetzea: arrunta.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Esleipen irizpideak:
preziorik baxuena: gehienez, 50 puntu.
Berme epea luzatzea: gehienez, 1,5 puntu.
Memoria: gehienez, 48,5 puntu.
 - d) Ikus klausula ekonomiko-administratiboen agiria, puntuazioa finkatzeko.
4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua
Lizitazio oinarria: 677.327,64 euro BEZa: 142.238,80 euro
Kontratuaren aurrekontua: 819.566,44 euro
5. Bermeak
 - a) Behin betikoa: esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5, BEZa aparte.
6. Agiriak eta argibideak eskuratzea
 - a) Sistemas Arco kopia denda, San Antonio kalea, 16-behea; PK: 01005, Gasteiz. Telefonoa: 945232813. b) Berantevillako Administrazio Batzarra. Telefonoa: 945 337059
 - c) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna:
agiriei buruzko informazioa eta informazio osagarria jasotzeko eskaera, beranduenik, eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 12 egun lehenago aurkeztu behar da.
Informazio gehigarria jasotzeko eskaera, beranduenik, eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 9 egun lehenago aurkeztu behar da.
7. Kontratataren berariazko betekizunak
K taldea, 8 azpitaldea, E kategoria.

8. Eskaintzak aurkeztea

a) Epemuga: hogeita sei egun naturaleko epea, lizitazioaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen agirian aipatzen direnak.

Aurkezteko lekua: Berantevillako udaletxea, Kale Nagusia 11, 01211 Berantevilla (Araba). Tel.: 945 337059. Astelehenetik ostiralera, 9:30tik 13:30ra.

d) Lizitatzailleak eskaintzari eutsi behar dion epea: bi hilabete, eskaintzak irekitzen direnetik aurrera.

e) Aldaerak onartzea: ez

9. Eskaintzak irekitzea

a) Erakundea: Berantevillako Administrazio Batzarra

b) Posta kodea eta herria: 01211-Berantevilla (Araba)

Eskaintzak irekitzea: "A" gutun-azala, formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzkoa, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo hamargarren egun baliodunean egingo da, 12:00etan.

10. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausulen agiria

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

12. Iragarkia Europako erkidegoen egunkari ofizialera bidaltzea. Ez dagokio.

Berantevilla, 2016ko azaroaren 8a

Errejidore lehendakaria

GREGORIO ALONSO VALLEJO